

Juan San Martin Liburutegia  
*“Idazlearekin harixa emoten”*



**IBAIERTZEKO IPUINA**

Oihane Amantegi, Elkar, 2020

**Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-03-02**



**Wikipedia**

<https://labur.eus/FKMLB>

**111 Akademia**

<https://labur.eus/HPbPL>

**eitb.eus – Elkarrizketa**

<https://labur.eus/zOX24>

## Sarrera hitza

Luis Landero espainiar idazle interesgarriak esana da: “Haurtzaroa amaitzen da etorkizunaren bidutzia (munstroa) agertzen denean.”

Horixe baita nobela, ipuin edo istorio labur den kontakizun hau. Errugabetasunaren (inozentziaren) kantu etengabea. Orduantxe atontzen baita gure biziaroko pentsamendu garbi-garbia.

Eta musika, huraxe dugu gizakiok presente eduki behar. Gure protagonistaren kasuan “beste” osagai ezinbestekoa bere diskurtso bizigarriari eutsi ahal diezaion.

Van Morrison eta Bob Dylanen doinu lasai-erakargarrien igurtzi goxoaz, Ochlockonee ibaiaren xuxurlaren begiradaz, garatzen da ipuin hau. Neskato baten gogoeta isuri da, aipaturiko kantarien musika atseginak ez oso urrun entzuten diren bitartean: nola egin heriotzaren kontakizuna, haren etorrera eramangarriagoa, zer egin, nola kudeatu sortu ohi den oinazeaz, minaz, nola ekidin haren dei saihestezinaren kolpea?

Ariketa polita plazaratu digu Oihane Amategik hausnarketaz beteriko lan xamur honetan.

## Egitura

Bost “parte” ditu nobela labur honek. 96 orrialdetan banatua, egileak beste bat eskaintzen dio “oharren bat edo beste musikaz” izenpean erantsi duenaren bidez. Guztira, bada, 98 orrialde. 29 ataletan idatzia dator kontakizuna. Aipaturiko bost atalburuok, **Eztia, txalupa, txanpona, ibai izoztuak** eta **agurra** dute, hurrenez hurren, izenburua.

Eranskin bezala, arestian adierazi legez, Van Morrisonen bi kanta, Tupelo honey eta Crazy love, bai eta Bob Dylanen Goin’g to Acapulco ere, kantu horiek han-hemenka kokatzen dira istorio honetan, kontakizunean barrena aipatzen direlarik, protagonistak irudikatzen duen mundu sinbolikoaren lagungarri.

Agian, luzeragatik ez balitz, ipuin deitu beharko genuke honako kontraera hau, egileak berak izenburuarekin idarokitzen digun bezala. Baditu ipuinaren ezaugarriak: mundu atenporala, naturaren legez kanpoko gertakariak, baina baita nobela baten osagaiak ere: ehuna, trama: garapen bat daramana eta amaiera ezezaguna.

1. pertsonan idatzia, denborak garapen logiko bat daroia kontakizunean zehar. Ipar Amerikara garamatza hark, Estatu Batuetara, Georgia errepublikara, zehatz esateko. Bikote ezkonberri gazte bat bertara iristen da eta, edozein maizter bezala, irudi luke XVIII. mendean gaudela, izen arraroa duen ibai baten ertzean bere etxea eraikiko du. Eszenarioak, adierazi legez, orduko egoera koloniala gogorarazten digu: zurezko etxeak,

bizilagunek eurek eraikiak, etxaurre zabala non egurrezko kulunkari bat ezarririk duten, naturarekin harreman estua... Bestalde, auzoan beltzak eta zuriak harmonia onean bizi direla dirudi: bizitza lasaia, ibaiaren zarata delarik entzuten den hotsik handiena; hura baita zelanbait eguraldiaren epaile: noizbehinka hark ekartzen dituen uholdeak gertakari garrantzizkoenetako bat izaten dira.

### **Familia bizitza eta... Karonte. Transgresio bat**

Protagonistak ahizpa ia jaio berria, baina tamalez hila, egurrezko kaxa batean sartzen gogoratzen du: trauma horrek, sinestezinezko egia garratzak, oinaze horrek, alegia, haren sentsibilitatea biziarazten du ametsetako triangelu bat osatzeraino non hiru “pertsonaiak” baino ez duten sarrera: bera, ahizpa eta gidari berezi bat Karonte.

Egileak Karonteren kasuan halako mitoaren historian halako *lege urratze* bat, transgresioa, egin du. Izan ere, Karonteren kondairari begira eta, hari fideltasunez jarraituz, batelari bizartsuak bidaia bakarra egiten du beste aldera daraman bidaiari bakoitzeko. Ez dago inorentzat itzulaldirik. Halere, ederki baliatu du Amantegik literaturtasunez beterik datorren Karonteren irudia. Jakina, narratzaileak badaki errealitatearen eta fikzioaren arteko pentsamenduen borrokan zeinek irabazten duen. Karonte sinbolikoki bizi den ahizpa fikzioarekin (ahizparen espiritua) lotzen duen zilbor hestea dugu.

Haur baten bizipenak dira. Haur horrek ahizpa galdu zuen (ahizpa bikia) amak erditu zituenean: “eta ahizpa bikiarekin jaio nintzen ni” (18) eta, orain, ibai barrenera jaisten da, Karonte baitabil han inguruan bere ahizparekin... Hobeto esateko, bertara etortzen da noizbehinka bere txaluparekin, alde honetako hildakoak bestera pasa arazteko, beste azpi mundura, Hades-era. Horixe baitu bere betiko eginkizuna<sup>1</sup>.

Karonte batelariari neskatoaren irudimenak haren kondairak aurre ikusten ez dituen lanak ematen dizkio argumentu xalo bezain politean: (Hark) indarrez oratzen dizkio orkatilak ahizpari ibaira eror ez dadin, “zeren hildakoek ez dakite igerian, baina hildakoek igerian ez dakitela Karontek berak baino ez daki”!

Gauzak horrela, zortzi urteko neskatoak bere mundua eraikia du ahizpa hilarekin, zeini bizirik balego bezala zuzentzen baitzaio, erreka bazterrera jaisten den bakoitzean.

---

<sup>1</sup> Karonteren lana, greziar mitologiatik ezaguna, hildakoen arimak Hades-era eramatea zen. Karontek etengabe errepikatzen duen bidaia amaigabea da bere txalupa zahar eta higatuan. Gure ipuin honetan, egileak Orfeoren kondaira islatzen du non hark bere maite hila Euridice mundura berriro itzultzeko Karonte eta Cerbero engainatu egin bazituen.

Narrazioa astiro-astiro, Ochlockonee ibaiaren emaria bezalaxe, isuri doa narratzaile orojakilearen ezpainetan. Nekazari, herri-giro baketsuan dabil, non ez den aparteko ezer berezirik gertatzen<sup>2</sup>.

### **Mina: haren izaera eta ñabardurak**

Eleberriaren osotasunean nonahi ager badaiteke ere, lehenengotan ikusiko dugu maizenik.

Badira min mota asko. Mina, min fisikoa, gutariko edonork jasan dezakeena eta jasan egiten dugu, zoritxarrez.

Min psikikoa. Gure honetan agertzen dena, behin eta berriro. Min berezi bat. Zeren ez baita **absentzia** batetik abiatzen. Egitasmo, proiektu baten porrot batetik baino. Ez da beraz, berriro diogu, absentzia bat, *stricto sensu*. Izan ere, ez da berez inoren falta sentitu behar. Mundura etorri behar zuena *bidean* geratu delako. Ez da bizigai bat, ez eta abortu bat ere. Hilik *jai*o ez den gizaki-proiektua baizik. Baina *beste aldea* badago, ipuina kontzeptu dual horren inguruan dago eraikia: beste aldekoak eta hemengoak, bazter hartakoak eta hemengoak. Ochlockonee ibai ertzekoak eta besteak.

Hain zuzen, neskato biziaren sentiberatasuna injustizia batetik abiatzen da. Zergatik bere odola, bere gorpuzkiak dituen bere beste zati hura ez da bizitzara iritsi, eta, bera, bai? Berdin-berdinak ziren. Egurrezko sehaska bana prest zuten, baina jaiotza uste gabeko haren ondoren, aitak erre behar izan zuen hura.

Eta horrela mina dator. Oinazea. Kontakizuna ahizpa biziaren errelatoa dugu. Eta bestearen absentzia arintzeko, hasteko, dolua eta erritua datoz. Ezinbestekoak, minak sortzen duen indar negatiboa *dagokion* erretenean sartzeko. Erritua, indar handia duena gizarte afroamerikarretan. Dolua, berriz, minaren antzerkia, zentzu onean esanda.

Haur baten mina da. Pentsa zezakeen: naturaren akats bat izan da. Baina, noski, orduan ez zen haur baten begietatik ikusitako gogoeta izango.

Mina, zehazturik joango da neskatoaren burmuinean, koskortzen doan heinean. Eta, protagonistak ez du minaren eszeptikotasunik onartuko: “zer axola nire ahizpak izenik ez badu?”

Mina beti presente izango dugu kontakizunaren harian. Eta beti, protagonistaren barne gogoetaren bidez. Zer esanik ez, ondorio terapeutiko nabarmena duena.

---

<sup>2</sup> **Ochlocknee** ibaia, Georgiako hegoekialdean sortu eta Floridako Apalache badian itsasoratzen da, 332 kilometroren ondoren.

## **Nobela eta heriotza**

Irakurlearen lehen impresioa izan liteke heriotzaz gogoeta egiten duen eleberri baten aurrean gaudela.

Hain zuzen, bere errealitatearen ikuspegi berezi harekin, konponezina den bakarra, dio neskatoak, “noizbehinka” agertzen den heriotza da, baina berau ere “keinuka, dantzan” omen dator (16).

Eta **mina**. Arestian irakurri dugun legez, beti presente narrazioan. Baina jasaten duenak era eraikitzailean ikusi behar du: ez diogu aurrez aurre begiratzen, eta horixe behar dugu.

Eta **musika**, berriro ere: “Berbak baino lehen iritsi zitzaizkigun”. Aipaturik geratu dira musika doinuen garrantzia gizakiaren aldarlean. Lehen orain baino arras gehiago gure gizartean, une batzuetan minaren aringarri, protagonistak ahizparen hiletetan irudikatzen duen bezala. Eta, arestian aurreratu dugun legez, balio terapeutiko ahantzezinak ditu:

Alabama harmonikaren soinuek ezirik gozoena egiten dute (83).

## **Ahizpa biziaren ardura: urrezko txanpona**

Oihane Amategik sentzibilitate handiko kontakizuna ehundu duelakoan gaude. Urrezko txanponaren pasarte, esaterako, fina eta iradokizun handikoa dugu. Neskatoak urrezko txanpona eskuratu behar du; izan ere, zer gerta liteke ahizpa txikia dirurik gabe geratuko balitz Karonteri ordaintzeko? Agian ukatu egingo litzateke Karonte hura mundu hartatik honantz ekartzen bidaiak insolito honetan? Izan ere, haranzko bidaiak egiten ditu Karontek inoiz ere alderantzizko zentzuan. Baina ezinbestekoa du lan hori lemazain berezi hark. Bestela ezingo luke ahizpa batek, bestea *ikusi*.

Urrezko txanponaz segurtatua luke ahizparen ikustea. Betierekotasunaren, eternitatearen txanpona izango luke. Bizitza, azken finean, heriotza bezala, kate bat baita harandikoak eta hemendikoak harremantzen dituen, oroimena bizi den artean.

## **Locus amoenus bat eleberriaren harian**

Locus amoenus bat, alegia, literatura mailan erabili ohi den esapidea dugu, hots, leku lasaia, orekatua bere paisaietan adierazten duena, halako paradisu ukitu batez, non bizitzaren arrazoiak edo beste edozertaz gogoeta egin daitekeen. Eta halaxe da. Pertsonaia nagusiaren kezka-iturriez eta zelanbait penaz blaiturik doa kontakizuna. Dikotomia horretan bakea, zoriontasuna versus arrangura, ardura; isuriz doaz narrazioan zehar non atsegin leku honetan edertasuna, elkar bizitza harmoniatsua, neskatoaren gogoetak bideratzen dituzten.

Hastapenean esan dugun legez, alde batetik, kutsu “biktorianoa” duen kontaera honetan, dena edo gehiena da oreka, arazo handirik gabekoa, bertakoen elkar bizitzan. Pertsonaia guztiz nagusi bihurtzen ari den neskaren inguruan, bere gurasoak daude eta aldameneko etxeetan bizi diren beste bi emakume haiek.

Gurasoen lanak ere asko laguntzen du: ama erlezaina da, tupelo arbolako ezti jaso eta saltzen du inguru hartan, eta ez nolana, “kantu goxo bat abestuz erleei” (16).

Leku miragarri honetan garatzen da ipuinaren mamia. Kapituluaren izenburuak irakurtzea aski dugu garapen horretan naturak duen garrantziaz. Badirudi haren presentziak haren izate hilezkorraren bekaitz jarri behar gintuzkeela bizidun hilkorrok. Inbidia diogu bai, naturaren lege hautsiezinei (beroaren ondoren, hotza etorri ohi da, eta, naturak beste aurpegi bat erakusten digu, Ochlockonee ibaia izozten denean bezala).

Beraz, naturaren lege hautsi gaitzetatik ikas dezagun, tupelo zuhaitzak urte oro ezti egiten laguntzen duenean. Ez da baina, arestian esan dugunaren kontra, dena **locus amoenus** bat. Izan ere, naturak bere legeak inposa diezazkioke izakiari: kudzuak, adibidez, landare igokaria berez, baina bere “jarrera” inbaditzailea baliatuz, Ochlockonee bazterrean bizi direnen oreka hautsi lezake.

Leku miragarri honetako orekan neskatoaren aitak ere laguntzen du. Hura, bere zerrategiko lanaz kanpo, ahoko soinua jotzen da trebea eta, zer esanik ez, aldameneko andreak, Joe Rose Marie eta Mae Janek, orain arte dioguna berretsi baino ez dute egiten. Arazorik sorrarazten ez duten auzokoak dira. Kuadro biribila ia akats gabea, bertan bizitzera erakartzen duena.

### **Ahizpa, Karonte eta bera**

Baina, arestian adierazi bezala, eleberriaren gunea goian aipaturiko triangeluak osatzen du. Bizitzaren ifrentzua dira ahizpa bien artekoak Karonte lekuko isila dutela. Bi hazpegi ditu nobelak, eta biek dute zeinek bere funtsa. Nolanahiko delarik ere natura bere lege aldagaitzekin, bere emari ederrekin (nobelan gertatzen den Ochlockonee ibaiaren uholdeak eurak ere badirudi samurrak direla, kalte gehiegizko gabeak), ez dugu ahantzi behar idealizatzen baditugu ere, naturak ez digula, edo agian bai, *gure bizia arrazoitzen*. Ez behintzat hartaz, unibertsoaz eta, azken finean, gu geu izaki pentsalari garen neurrian, geure lehenaz, orainaz eta, batez ere, geroaz oldozten jarriko gaituzten galderez aritzea. Protagonistaren itaunek izaki sentikor batek izan litzakeen aldarrez ñabartuak datoz: batzuetan alai eta baikor (ahizpa irudikatu eta inoiz ikusi ere egiten du), bestetan, –ba al du etsikortasunak lekuri nobelan?–, inpotentzia sumatzen zaio protagonistari heriotzaren aurrean. Hain zuzen, heriotzaren izate horretan, **ustekabetasunean** ikusten du protagonistak arazo, ez behar bada, bere **fatalismoan**.

### **Ahizparen idealizazioa**

Oso hurbil sentitzen du hura. Eta harengana doa bere hitza, bere sentimendua. Lekudenboraren garrantzia handia da nobelan. Izan ere, protagonista hazten doan neurrian, ñabardura berriak plazaratzen dizkigu.

### **Hizkuntzaz**

Ez du Oihaneren prosak arazorik adierazi nahi duena adierazteko gardenki eta zuzen. Zerbait esaten hasita, erabilera batek harritu egin gaitu. Eta da, hain zuzen, **lantzean** adberbioaren erabilerak.

Ez dakigu erabilera hori bizkaieraren eremuan gauza orokorra ote den. Guk geuk behintzat, gure azpieuskalkian, eta hemengo idiolektoan, **behin** denborazko partikulaz lagundurik erabili ohi dugu ia beti. Adibidez:

**Lantzean behin** joaten gara mendira;

Asko jota, partikula bera errepikatuz ere erabiltzen dugu: Urليا **lantzean-lantzean** mozkortzen da. Eta abar. Inoiz ere ez bakarrik.

Ostera, Amantegik **lantzean** osagai adverbiala bera bakarrik darabil ia beti kontraera guztian barrena. Esaterako, 71. orrialdean bi aldiz:

Bigarren paragrafoan: “**Lantzean**, Maeren portxera gurutzatu eta”...

Hirugarrenean beste horrenbeste: (...) “han ikusten nituen Rose Marie eta haurra –eta Mae Jean **lantzean**”...



14an, 16an, 75 eta 85ean, beste behin.

Gure irakurketen arabera, behin darabil, 25. orrialdean, hain zuzen, gure erara: (...) “minaren eta gainontzeko **lantzean behingo** osagarri haien denen artean”<sup>3</sup>...

---

<sup>3</sup> Baita 50ean eta 58an ere. Ez, ostera, 57an.

## **Iritzia**

Bizitza duin, orekatua eta elkarren errespetuan oinarritutako batek ez du ezta heriotzak berak ere eteteko ahalik baldin eta haren presentzia ukatzen ez badugu. Bizitzak bere **absentziara** garamatzan unea tren bidaia baten azken geltokia dugu olerkariak eta pentsalariak maiz irudikatua euren olerki eta gogoetetan. Sekretua nonbait, hari aurrez aurre begiratzean datza, horretarako ipuin luze honetan legez, gezur txiki batetik abiatu behar badu ere, **joan-etorriko heriotza** asmatu behar badu ere: ahizpa bikia etorri ohi zaio protagonista nagusiari, Karonteren txalupan, hitz egiten dio neskatoari eta gero ibaian zehar desagertu egiten da hurrengora arte.

Hori da, hain zuzen, gertatu ohi dena gutariko bakoitza Karonteren txalupara igotzen garen unean. Ipuin honetan baina “joan” dena itzuli egiten da noizbehinka bere aholkuak, bere iritziak eskaintzera, oraindik bidaia ahitu ez duen lagunari, ahizpari oraingoan, hitz egitera.

Etengabeko gorpil honetan, alde egin duena ez da betiko hilgo ibai ertzean dagoenak, gogoratzen, estimatzen duen bitartean. Eta horrela betierekotasunean joan dena biziko da norbaitek bazter, hegal honetatik gogoratzen badu.

Urrezko txanponaren irudia bikaina dugu, adierazi dugun bezala, bizitza, heriotza bezala, kate-maila bat baita azken finean, harandikoak eta hemendikoak harremanetan jartzen dituen, oroimena bizi den artean.

Egileak asmatu du, gure ustez, narrazio honetan bizitzan eskura ditugun lanabes espiritualak erabiliz (oroimena, maitasuna, sentiberatasuna, baikortasuna) irakurri berri dugun kontraera burutzeko.

Irudimena eta samurtasun eraikitzailea ditu zutabe lan honek. Gainera, inolako laguntza berezirik gabe (hemen ez zaio naturaz goragoko inori deitzen) ehundurik dator kontraera. Horrelako hausnarketa asko beharko lituzke gizakiak heriotzaren inguruko diskurtso etikoa eta zibikoa eraiki dadin.

Eleberri edo ipuin, kontakizun bikaina plazaratu digu Oihane Amantegik. Ez al da azkena izango!

---

## IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia

11



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus

